

Soziologia Orokorra, III
Soziologia Lizentziatura, EHU, 2002
Egilea: Iker Iraola Arretxe

GATAZKA SOZIALA

Aurkibidea

-Gatazka soziala	3
-Ikuspegi teorikoak	4
-Autore garrantzitsuenak	5
-Gatazkari buruzko teorien oinarriak: Dahrendorf	7
-Bortizkeria eta intentsitatea	8
-Gatazken irtenbideak	9
-Gatazken eraldaketaren teoria	11
-Giza eskubideak	12
-Komunikabideak	13
-Erabilitako bibliografia	15

GATAZKA SOZIALA

Gatazka harreman mota bat da, bi pertsona edo talderen artean ematen dena interes, ikuspegi, jarrera, balio... desberdinak kontrajartzen direnean. Gatazka bat soziala bihurtzen da aurkakotasun horren oinarria gizartearen egituraren ondorio denean; gatazka soziala, beraz, gatazka estrukturala da. Gatazka hutsa, berriz, ezinikusi batera mugatu dezakegu. Lan honetan, jakina, gatazka sozialaz arituko gara.

Gatazka sozialak gizataldeek gizartearen dituzten kokapen desberdinekin zerikusia du, gizarte batean dauden antagonismoak erakusten ditu, asimetriak. Ondorioz, iturburu oso desberdinak izan ditzake: klase ekonomiko-soziala (proletarria-burgesia, kasu), adina, generoa, nazio nortasuna, hizkuntza, kultura, arraza, etab.

Beraz, giza harremanen osagai bat da gatazka: maila pertsonaletik gizarte mailara arte. Gatazka, horrela, normalean ematen zaion kutsu negatiboaz harago ikusi behar da, badaude gatazka krudelak, bortitzak... baina gatazka, era berean, eguneroko osagaia da eta bideratutik eman daiteke (halaberrez forma negatiborik hartu gabe, alegia). Beraz, izaera positiboa ere izan dezake: aurrerapena dakarten aldaketak bultzatzea, gizartearen geldotasunarekin haustea...

Lehenengo feministek, adibidez, gatazka sortu zuten emakumearen boto eskubidearen inguruan –momentu hartara arte egoera hori normala zen, ez zegoen inolako gatazkarik–, eta arazo hori *sortzearen* ondorioz posible egin zuten aldaketak burutzea: lehendabizi jendeak gai hori kontsidera zezan lortuz, ondoren eztabaida sortuz eta jarrera desberdinak agerian utziz eta, azkenik, emakumeentzako boto eskubide eskuratuz. Hau da, batzuetan –Historian zehar horrela frogatu da– egoera jakinak aldatzeko gatazka *sortu* beharra dago (sortu baino gehiago, azaleratu, arazo bihurtu), bestela gatazka hori estalia gelditu baitaiteke eta, ondorioz, praktikan existituko ez balitz bezala izango litzateke.

IKUSPEGI TEORIKOAK

Soziologian gatazka soziala eta, oro har, gizartea aztertzerakoan, bi oinarritzko ikuspuntu aurkitzen ditugu, bata besteari guztiz kontrajarriak: ikuspegi funtzionalista batetik, eta kritikoa bestetik. Bakoitzak gizartea eta gatazka ulertzeko bi modu desberdin islatzen ditu.

Funtzionalismoaren arabera gizartea osotasun bat da, harmoniotsua den zerbait. Gizartea, hortaz, era simetriko batean ulertzen dute (ez dago hasiera batean –hau da, estrukturalki, gizartearen egituraren eraginez– desberdintasunik). Ondorioz, norberak bilatu behar du bere lekua gizartean; denak puntu berdinetik abiatzen gara eta, desberdintasunik baldin bada, norbanako horiek gaizki jokatu dutelako izan da (*ez dituztelako aukerak ongi aprobetxatu...*). Beraz, funtzionalistek gizarte orekatu bat irudikatzen dute, eta irudikapen honetan gatazka desbiderapen patologiko batekin parekatzen da, hots, gaixotasun batekin. *Gizartean integraturik ez bazaude zure errua da* antzeko bat botatzen dute. Ondorioz, funtzionalismoak gatazka sozialaren existentzia bera ezeztatzen du neurri batean: gatazkak egon badaude baina, esan bezala, hauen iturburua ez da estrukturala, *integrazio arazoak* bezalako fenomenoak baizik (pertsonean arazo partikularrak, finean).

Ikuspegi kritikoa aurrekoaren aurkakoa da. Kritikoentzat gizartea osotasun gatazkatsu bat da: asimetria da nagusi eta etengabeko aldaketan dago; gatazka gizartearen ezinbesteko osagaia da. Ildo honetan, gizartearen izaera kontraesankor eta gatazkatsu hau da aldaketa eta aurrerapena ahalbidetzen duena. Gatazkak, hortaz, printzipioz ez du zentzu negatiborik hartzen. Gatazka ekiditea errefusatzen dute guztiz, eta ideia totalitariotzat jotzen dute. Ikuspegi honentzat gizartea baturik eta ageriko gatazkarik gabe mantentzeko (edo gatazka ezkutuekin, gatazkak beti egon badaudelako gizartean) ezinbesteko elementua koakzioa izango da, gizatalde jakin batek besteei ezartzen dien koakzioa, hain zuzen ere. Ondorioz, kritikoen ideia nagusia gizartea eta gatazka bi errealitate osagarri bezala azaltzea dela esan dezakegu.

Bestalde, ikuspegi hauetako bakoitzak kutsu ideologiko garbia dutela agerikoa da. Funtzionalismoa eskuina edo ideologia kontserbadorearekin erlazionatua dagoen bitartean, kritikoa era argi batean ikuspegi ezkertiar eta aurrerakoitzat har dezakegu.

Eskuineko ideologiek beti izan dute gatazken existentzia ezeztatze joera, gatazken arrazoi bezala *inadaptazioa* jotzekoa, edota denon aukera berdintasuna azpimarratzekoa... Eta hau azaltzeko oso egokia da ikuspegi funtzionalista, zeinak gatazkaren iturburu estrukturala ukatu eta arazoa maila pertsonalera –gaixotasunera– mugatzen baitu, horrela aldaketa estruktural baten beharra ere ukatuz (sistema ekonomikoarena, politikoarena...). Adibidez, klase sozialetik eratorritako gatazketan, funtzionalismoaren edukiak erabiliz esan daiteke enpresario edota beste klase bateko pertsona batek egoera ekonomiko-sozial hobea badu, bere jardun ona, *bizitza osoan asko eta ongi lan egin duelako*, etab.en eraginez izan dela (pertsona guztiak maila beretik hasi direla aurreuposatzen delarik, kontutan hartu gabe gizartearen egiturak sortzen dituen baldintzak: status altuko familiakoa izatea, eremu geografiko pobre bateko herritarra izatea, talde sozial marjinatu bateko kidea, emakumea izatea, magrebiarra...). Ondorioz, irakurketa funtzionalista hau erabiliz, aipatu bezala, aldaketa estrukturalaren beharra guztiz ezeztatzen da.

Ikuspegi kritikoak, aldiz, gizartearen egituraren garrantzia azpimarratu egiten du gatazkak aztertzerakoan, eta baita gizataldeen arteko antagonismoak etab. ere. Aurreko adibiderek jarraituz, ikuspegi kritikotik gizartea osatzen duten klase sozial desberdinen egoera ekonomikoa, interes desberdinak, gizartearen egiturak sortzen dituen desorekak... aztertu beharko dira eta, ondorioz, maila politikoan gizartea aldatzeko zenbait neurri proposatzea ahalbidetu daiteke, egiturari erreferentzia eginez.

AUTORE GARRANTZITSUENAK

Ikuspegi kritikoa eta funtzionalista Soziologian gatazkaren inguruan egindako irakurketen oinarria dira. Teoria eta azalpen desberdinak, hala ere, ugariak dira. Laburbilduz, ondokoak dira Soziologian gatazkari buruz egindako planteamendu nagusiak, eboluzio bat erakusten duelarik:

Autore nagusiak, klasikoak, Marx eta Simmel ditugu. **Karl Marxek** hasi zuen gatazkaren azterketa XIX. mendean, ikuspegi kritikoa bere planteamenduetan oinarritu delarik. Beraz, oinarritzko ideiek ikuspegi kritikoa azaltzerakoan aipatutakoak dira. Marxek, hala ere, gatazka dialektikoa azpimarratu zuen, hau da, bi klase sozialen arteko borroka (zeina berarentzat Historiaren motorra baitzen). Horrela, borroka honek –

kontraesanen areagotzearen ondorioz, borroka erradikalagoa egiterakoan eta, ondorioz, indar harremanen aldaketa bat ematerakoan— aldaketa estrukturalak sortzen ditu azkenean. Gatazkaren ahalmen eraldatzailea azpimarratzen du, hortaz. Marxek horrela ikusten zuen gizartearen funtzionamendua, guztiaren ardatz bezala arrazoi ekonomikoak hartuz (hau da, produkzio bitartekoen jabetza zein klase sozialen esku dagoen aztertu beharra dago, hortik eratortzen baita egoera sozial osoa).

Beste autore klasikoa, **George Simmel** dugu (XX. mende hasieran). Honek kontrakoa azpimarratu zuen: gatazkak berezko duen funtzio bateratzailea. Hau da, Simmelek azpimarratu egiten du gatazka positiboki bideratzeko aukera badagoela, horrela bideratuz gero kohesioa sortuz. Aipatu beharra dago Simmel funtzionalismoaren zenbait kontzeptzio hartzen dituela, adibidez, gizartea batasun esparrutzat hartzen du, ez osotasun gatazkatsu bezala.

Bere aburuz, gatazka egoteko zerbait amankomuna behar du egon (horregatik, gatazka batasun esparru batean ematen da). Gatazka, era berean, hiru motatakoa izan daiteke: taldeen artekoa (proletargoa eta burgesiaren artean, adibidez), taldearen baitakoa (langile mugimendu barneko ideologiaren artean: sozialismoa, anarkismoa, komunismoa...) eta taldeari buruzkoa (zer da proletargoa, zein da proletarioa...). Ildo honetan, Simmelen arabera baldintza jakin batzuk betetzen badira, gatazkak funtzio bateratzaileak betetzen ditu: taldearen arerioa, etsaia, definituz talde kohesioa indartu daiteke, taldearen mugak modu irmoago, gogorrago batez definitzen dira, etab.

Bi autore hauetaz gain, XX. mendeko 50eko hamarkadan, II. Mundu Gerra ostean, ekin zitzaion berriro gatazka aztertzeari. Gerra osteko gizarte horretan, eta jada bi mundu gerra pairatu eta gero, beste mundu mailako gatazka armatu batean ez erortzeko nahi eta beldurraren ondorioz, gatazkak aztertzeke jakinmina piztu zen. Garai honetan autore ugari sakontzen dute gaia (Aron, Kerr, Dubin, Gluckman, Coleman...) eta gatazkari buruzko argitalpenak sortuko dira, garrantzitsuena *Conflict Resolution*. Autore garrantzitsuenak, hala ere, **Dahrendorf** eta Coser ditugu. Lehena Marxen lanetatik edanez gatazka sozialaren teoria bat sortzeko bidean jardungo du¹. Marxi, hala ere, kritika egingo dio, bere aburuz gatazka soziala eremu ekonomiko-labolarera

¹ Dahrendorfen ekarpena hurrengo puntuan azalduko da gehiago, bere *Elementos para una teoría del conflicto social* lana oinarri harturik.

mugatzen baitu. **Coser**, aldiz, funtzionalismotik gertu dago eta Simmelen lanetan oinarrituz burutzen du bere azterketa. Funtzio bateratzaileaz haratago aztertuko du gatazka, funtzionalismoarentzat ere gatazka ikerketa gai garrantzitsu bihurtuz (ordura arte, kritikoek batez ere aztertu baitzuten gaia, gatazka ikuspegi kritikoaren eremua soilik zirudielarik).

60ko hamarkadatik aurrera, gatazka sozialaren azterketa espezializatu egingo da. Gaiari buruzko lanak asko ugalduko dira, batez ere gatazka espezifikoen inguruan – gatazka ekonomikoak, etnikoak, nazionalak...– eta gatazken konponketaren inguruan. Garai honetan, beraz, teoria ugari plazaratuko dira. Testuinguru soziala kontuan hartuz, garrantzi berezia dute iraultzei buruzko hausnarketek (Sztompka, Aya, Tilly, Skocpol, Tarrow, Goldstone...). Era berean, ekintza kolektiboa ere sakonki aztertuko da (Zald, McCarthy, Touraine, Habermans...). 80ko hamarkadan ere ikas eremu berriak izan ziren; hala nola, nortasun kolektiboaren teoria... Azkenik, nahiz eta ikerketa gaiak oso ugariak izan diren, 90eko hamarkada aldean sortutako gatazken eraldaketaren teoria aipatu nahi nuke (zeina hurrengo puntuan azalduko den gehiago).

GATAZKARI BURUZKO TEORIEN OINARRIAK: DAHRENDORF

R. Dahrendorf, aipatu bezala, gatazka sozialen teoria bat eraikitzeko oinarriak finkatu zituen. *Elementos para una teoría del conflicto social* lanean oinarri horietako ugari aipatzen dira. Bertan, bost gatazka mota zehaztu zituen Dahrendorfek, ondoko koadroan agertzen direnak:

Partehartzaileen ezaugarriak Unitate soziala	MAILA BEREKOAK	GOI MAILAKOA vs BEHEKOA	OSOTASUNA vs ZATIA
Rol-ak	Rol familiarra eta rol profesionalaren artean	Rol profesionala eta aisiako rolaren artean	Soldaduren rola eta obedientziareko betebeharraren artean
Taldeak	Mutilen eta nesken artean (eskolako klase barnean)	Talde bateko Zuzendaritza eta kidearen artean	Enpresa bateko langile zaharren eta langile berrien artean
Sektoreak	Enpresa bat eta beste baten artean	Patronala eta sindikatuaren artean	Alderdi politiko baten eta barne-korronte kritiko baten artean
Gizarteak	Euskaldunen eta espainiarren artean	Zurien eta beltzen artean (Apartheid-eko Hegoafrikan)	Estatua eta erakunde armatu baten artean
Estatuz gaindiko elkarteak	Iparra eta Hegoaren artean	Estatu Batuak eta Iraken artean	Nazio Batuak eta Jugoslaviaren artean

Behin bost gatazka mota hauek zehaztuta, gatazka gehienek iturburua desberdintasuna dela dio. Dahrendorfentzat berdintasun ezak botere banaketa arazoak sortzen ditu eta, honen ondorioz, sortzen dira gatazkak. Menerapenaren banaketa desorekatuak, era berean, gatazka du ondorioztat. Hala ere, honekin ez dugu ulertu behar Dahrendorfek menerapena gaitzesten duela: “*sociedades sin dominio sólo nos son conocidas hasta ahora en la fantasía de los utopistas y antropólogos*”².

Ildo honetan, egoera estruktural jakinak egotetik gatazka sozialak sortzerako bidean, hiru etapa bereizten ditu:

⇒ Abiapuntua. Jada bi alde bereizten dira, gizartearen egiturak sortutakoak. Bi alde estruktural hauekako bakoitzak, era berean, kokapen sozial desberdina betetzen du. Gainera, alde jakin batean egoteak interes jakin batzuk izatea dakar. Taldetik ateratzeak zigorra du ondorioztat.

⇒ Aurreko gatazka *ezkutu* hori azaleratu egiten da bigarren etapa honetan. Aurreko talde estruktural horiek antolatu egiten dira taldeetan euren interes propioak defendatu asmoz. Prozesu hau emateko, hala ere, zenbait baldintza bete behar da: teknikoak, sozialak nahiz politikoak.

⇒ Azkenik, hirugarren etapa gatazka jada garaturik dagoenean ematen da. Hau gatazkan parte hartzen duten bi aldeek nortasun antolatu bat dutenean ematen da.

Beraz, horrela sinplifika dezakegu gatazka sozialen formakuntzan Dahrendorfek azaltzen duen prozesua:

Gatazka ezkutua → Gatazka azaleratua → Gatazka garatua

BORTIZKERIA eta INTENTSITATEA


Honekin batera, gatazka sozialen forma eta, bereziki, bortizkeria eta intentsitatea ere ditu aipagai Dahrendorfek. Bere aburuz, hauek gatazken bi dimentsio erabakigarri dira, eta ongi bereizi behar dira. Horrela, bortizkeriak gatazkaren adierazpideari egiten dio erreferentzia, aldeek erabiltzen dituzten bitartekoei. Intentsitatea, aldiz, aldeek

² DAHRENDORF, R., *Elementos para una teoría del conflicto social*, 190. orr.

darabilten energiarekin erlazionatua dago eta, beraz, gatazkaren larritasunarekin. Aldeen artean mugikortasuna geroz eta txikiagoa izan, era berean, gatazkaren intentsitatea handitu egiten da.

Puntu honetan, Johan Galtung-ek bortizkeriari buruz eginiko irakurketa ere aipatuko dut. Honek bortizkeria eredu desberdinak zehazten ditu. Ageriko bortizkeria biolentzia zuzena, fisikoa edo ahozkoa da. Bi oinarri ditu, batetik berez bortitza den egitura bat (zapaltzailea, errepresiboa...) eta, bestetik, bortizkeriaren kultura bat (heroikoa, patriotikoa, patriarkala...). Bi hauek ezkutuan daude, baina bortizkeria zuzena sortzen dute aktore biolentoen bidez azalarazten da, aktore hauek egituraren aurka altxatzen baitira, biolentziaren kultura erabiliz legitimazio modura.

Galtungen planteamendu hau horrela irudikatzen da:



Planteamendu hau hankamotz gelditzen da bortizkeria kulturalari dagokionean. *Biolentziaren kultura* kontzeptu horrekin, eman dezake aktore batek biolentzia darabilela ohitura baten edo antzeko zerbaiten eraginez eta, gatazketan inertziak sortuko diren arren, sinpleegia da horri soilik erreferentzia egitea. Bortizkeriaren kultura, gainera, egiturak sortua izan daitekeela esatea ez dirudi txorakeria. Beraz, bortizkeria kultural hori, egiturazko arrazoiak estaltzeko erabili daitekeen kontzeptua izateaz gain, egiturazko bortizkeriaren ondorio bat izan daiteke.

GATAZKEN IRTENBIDEAK

Dahrendorfen lanera itzuliz, egile honek gatazka sozialen konponbideen gaia ere jorratzen du. Lehenik eta behin, gatazka sozialak konpontzeko errepresioa kaltegarri ikusten du. Irtenbide errepresiboak gatazka areagotu besterik ez du egiten. Epe luzera, gainera, ezin da errepresioan edo biolentzian oinarrituz gatazka egonkorki mantendu.

Honekin batera, ideia garrantzitsu bat luzatzen du Dahrendorfek: Gatazka sozialak, gizarte egituretatik sortutako antagonismoak, ezin dira soluzionatu, konpondu, baizik eta erregulatu daitezke. Gatazken eraldaketaren, transformazioaren, ideia azaltzen zaigu hemen³.

Gatazka sozialak erregulatzeko, bideratzeko, forma desberdinak azaltzen ditu Dahrendorfek:

⇒ Eztabaida: Gatazkan parte hartzen duten alde desberdinek eztabaidarako foro bat izatean datza. Hau, hala ere, oso gutxitan da bideragarria.

⇒ Bitartekaritza: Aurreko formulak balio ez duenean, gatazkatik kanpo dagoen hirugarren aktore batek –bi aldeek onartutakoa– esku hartzea. Bitartekariak konponbiderako proposamenak egingo ditu, eta aldeek entzun eta kontuan hartuko dute. Dahrendorfen aburuz, modu hau oso tresna eraginkorra da.

⇒ Arbitraja: Bitartekaritzaren antzekoa da, baina aurrekoak bakarrik balio ez duenean ematen dena. Honetan bitartekariak aholkulari papera baino gehiago betetzen du, aldeek hartutako konpromisoaren arabera.

⇒ Nahitaezko arbitraja: Aurrekoak soilik balio izan ez duenean, aldeek konpromisoa hartzen dute bitartekariak dioena onartuko dutela. Modu honek, beraz, adostasuna baino obligazioa dakar. Dahrendorfentzat, nahitaezkoa izatera iritsi baitaiteke ere, erregulazio forma honek erakusten du irtenbidea ezegonkorra izan daitekeela.

Dahrendorfek, ikusi dugun bezala, gatazka sozialen azterketan oinarri garrantzitsuak ezarri zituen. Baita gatazken konponketaren alorrari dagokionean ere, zeinean azkenaldian gatazken eraldaketaren teoriak indarra hartu duen.

³ Gatazken eraldaketaren inguruan gehiago sakontzen da hurrengo puntuan.

GATAZKEN ERALDAKETAREN TEORIA⁴

Gatazken gaia aztertzerakoan, ikusi dugun bezala, askotan mahaigaineratu den gaia izan da gatazkak nola ekidin, nola konpondu, hots, gatazka egoerari (batez ere gerrei, gatazka armatuei...) aterabideak bilatzea. Horrela, azterketa honetan ugariak izan dira gatazken konponketarako teoriak. Gaur egun gatazken konponketa⁵ teoriak neurri batean gainditu edo garatu eta, erresoluzioaz baino gehiago, gatazken eraldaketa eta kudeaketaz hitz egiten da. Honen azpian ezkututzen den ideiak adierazten digu nola gatazkak *konpontzeko* lanetan zebiltzanak (bitartekariak...) zein gatazkak aztertzen zituzten ikerlariak (gatazken ikerketaz arduratzen diren institutu garrantzitsuak daude Estatu Batuetan) helburua aldatu duten. Hau da, gaur egun uste da soluzioa lortzeko gatazka desagertzea ez dela beharrezkoa (askotan ezinezkoa baita); honen ordez, gatazka onartu beharraren ideia zabaltzen ari da. Gatazka bera ez baita arazoa, baizik eta honen adierazpideak, formak, ondorioak... negatiboak direnean, ondorio negatibo horiek eraldatu eta positibo bihurtzea da gakoa. Hots, ondorio negatibo horiek (hildakoak, biktimak, suntsiketa...) sortzen duen energia eraikitzaera bideratzea. Energia suntsitzailea energia eraikitzaile bihurtzea da ideia. Zeren eta gatazka, intentsitate gehiagoz ala gutxiagoz, forma bortitzan ala ez, gizartea beraren osagai baita. Ez da gatazkarik gabeko gizarterik. Beraz, gatazka ere kontrolatua erdiestea da helburua.

Gatazkaren ondorioen kontura itzuliz, gatazkaren *degenerazioaz* hitz egiten da, azkenean ondorioak hartzen baitira arazo bezala, benetako gatazka –eta, beraz, konponbidea– estaliz. Honen adibide garbia da Euskal Herrian ematen den egoera. Estatu espainiarrak eta bere aldekoek (politiko, hedabide, etab.ek) behin eta berriz errepikatzen dute Euskal Herrian ez dagoela gatazka politikorik, arazoa gizatalde jakin batena bakarrik dela, ikastoletan jasotako hezkuntzaren eraginez euskal gazteak biolentoak direla, espetxe eta zigorrak oso malguak direlako erabakitzen duela jendeak indarkeria erabiltzea... Diskurtso sinple honekin lortu nahi dena garbia da: gatazka konpontzeko erabaki politikorik ez hartzea; gatazka politikoa ez bada, hartu beharreko neurriak soilik errepresiboak izan beharko dira-eta. Eta horrela gertatzen da munduan

⁴ Puntu honentzako informazioa EHUK 2002an antolatutako Udako Ikastaro honetatik atera dut: *La teoría de transformación de conflictos aplicada al caso vasco*. Bestalde, puntu honen barnean sartu ditut “Giza eskubideak” eta “Komunikabideak” azpipuntuak horiei buruzko materiala ikastaro berekoa delako eta gatazken eraldaketaren teoriarekin erlazionaturik azaltzen direlako.

⁵ Konponketa hitzarekin, gaztelerazko *resolución* adierazi nahi dut.

zehir adierazpide bortitza edo armatua duten gatazka gehienekin, dela Palestina, dela irailaren 11ren ekintzen atzean dagoen Mendebaldearen eta mundu islamiarraren arteko afera, etab... Nazioarte mailan gatazkak interpretatzeko modu edo irizpide hau nagusi da gaur egun. Gatazkaren eraldaketa teorian adituek, aldiz, ezinbestekotzat jotzen dute gatazkaren etapa hori gainditzea gatazka benetan konpondu nahi bada (ondorioetan soilik zentratuz, ezinezkoa baita edozein gatazka konpontzea).

Beste alde batetik, gatazkaren azterketa Eraldaketa Teoriatik abiatuz gero, aztergaiak oso anitzak izatera iristen dira: gizarte zibila, giza eskubideak, hedabideak, mentalitate desberdinak, nazioarteko zuzenbidea, bitartekaritzarako baldintzak... Hona hemen, oso era laburrean, teoria honen arabera aipatzen diren zenbait kontu:

GIZA ESKUBIDEAK

Argi dago forma bortitza hartzen duen edozein gatazkak ondorioak dituela giza eskubideen alorrean. Gatazka bat aztertzerakoan, hortaz, nahita nahiezkoa da gatazka pairatzen duen herri horren diagnosi bat egitea. Honetarako, nazioarteko komunitatean onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da ereduia. Erakunde publikoen jarrera aztertzerako orduan –azterketa mailan beraz– sailkapen bat egin beharra dago. Ruiz Olabuenaga irakasleak⁶ hiru maila bereizten ditu, bakoitza betetze mailari eginez erreferentzia:

⇒ Atxikimendu maila: Kontuan hartzen da ofizialki edo teorikoki giza eskubideen kodea onartzea edo ez onartzea. Gaur egun ez dago erakunde publikorik horren kontra egiten duenik, nahiz eta gero errealitatea oso bestelakoa izan

⇒ Sustapen eta kudeaketa maila: Erakundeek duten jarrerari erreparatzen zaio, sortzen edota errazten dituzten tresnak edo bitarteko instituzionalak aztertuz.

⇒ Kontrol maila: Edozein giza eskubide urratua izan ez dadin jartzen diren bitartekoak –inspekzioa, ebaluazioa eta zigorrak– aztertzen dira.

Modu honetan erakundeen jarrera aztertu ostean, errealitatean giza eskubideak betetzen diren eta hiritarren ikuspegia aztertzekeo –erakundeen lanaz gain– zenbait azterketa eremu finkatzen ditu egile berak:

⁶ Aurrean aipatutako Udako Ikastaroaren barruan *La situación de los derechos humanos en Euskal Herria* deitutako hitzaldia.

⇒Egoeraren definizioa: Herritarrek giza eskubideen egoera –inkesta edota bestelako prospekzioen bidez– nola antzematen duten biltzea.

⇒Biktimizazio maila: Giza eskubideen urraketa euren larrutan zein punturaino pairatzen duten herritarrek, eta zenbatek duten euren burua biktimatzat.

⇒Arduren maila: Puntu honetan herritarrek giza eskubideen alorrean nor egiten duten erantzule aztertzea, bereziki erakunde publikoetan sakonduz.

Azterketarako sailkapen honetan guztian “giza eskubideak” zer diren inguruko eztabaida saihestu egiten da (egileak beharrezkotzat jotzen du hori aurreratu ahal izateko). Sailkapen honen xedea giza eskubideei buruzko diagnosi hierarkizatu bat egin ahal izatea da, azkenik.

KOMUNIKABIDEAK

Gatazken konponbiderako prozesuan berebiziko garrantzia egozten zaie komunikabideei. Gaur egungo gizartean zenbaterainoko indarra eta eragina duten kontuan hartuz ez da harritzekoa. Gatazken alorrean zentratuz, komunikabideek ahalmen handia dute egoera lasaitu edo, aldiz, astintzerakoan. Gatazken konponketarako edozein teoriatan argi azaltzen da komunikabideak bigarrenerako apustu eginez gero, konponbidea asko zaildu egiten dela. Gaur egun, beraz, edozein gatazkaren konpontze prozesuan hedabideak hartu behar dira kontuan eta, ondorioz, beraien atzean dauden interes ekonomiko eta politikoak.

Hau oso gai konplexua da. Hala ere, gaisetik bada ere, Idoiaga eta Ramírez de la Piscina EHUko irakasleen ikerketa-lana oinarri harturik⁷, aurreko arazoak Euskal Herrian duen eraginari buruz zenbait zertzelada aipatuko dira jarraian. Ikerketa-lan horretan 1998 eta 2001 urteen artean 11 egunkaritan *euskal gatazka* deitutakoari buruz irakur zitekeena aztertzen zen eta, honekin batera, 3.000 elkarrizketa egin ziren bai Hego Euskal Herrian eta baita Espainian ere.

Ondorio nagusienetako bat Euskal Herriko gatazka gertakari mediatiko itzela dela da. Hau da, prentsan beti present dagoen eta espazio eta garrantzia handiena

⁷ José Vicente Idoiaga eta Txema Ramírez de La Piscinaren *Medios de comunicación y conflicto vasco* hitzaldia, Udako Ikastaroan. Bertan ikerketa-lanari buruzko xehetasunak eman ziren.

betetzen duen gaia da euskal gatazka (kutzazain automatiko baten erreketak, adibidez, zati handi bat betetzen duen bitartean, laneko heriotza batek zutabe txikia edo ezer ere ez). Ikerketaren egileen arabera, gehiegizko presentzia hau ez da kazetarien lanaren errutinen ondorio hutsa, baizik eta enpresa informatibo handien estrategia komunikatibo zein politikoaren ondorio zuzena. Horrela, komunikabideak eta sistema politikoa batera dihardute, eszenario politikoaren produktore bezala (prentsa agerraldiak, politikoen adierazpenak...). Hauek ipintzen dute euskal gatazka lehenengo mailan, eta *Estatu arazo* bezala aurkezten dute.

Era honetan, gatazkaren sustraiak eta dimentsioak ulertzen lagundu beharrean, hedabideek euskal gatazka euren interes politikoen arabera interpretatu egiten dute, espektakulu baten antzera aurkeztuz. Komunikabideek enfrentamendu egoera areagotu egiten dute, gatazkaren *humanizazioaren* alde egin ordez (hau bereziki argi gelditzen da ETA erakundearen su-eten garaian, zeinean egileen aburuz hedabideak gatazkaren partaide aktibo bihurtu baitziren).

Ondorio hauek guztiak, jakina, orokortuak dira eta komunikabide desberdinen artean ere desberdintasunak egin behar dira. Hala ere, joera hau da dominantea (eta bakarra esan dezakegu Espainiar Estatuko egunkari handietan).

Bestalde, komunikabideen ildo honek gizartean duen eragina aztertzerakoan, ikerketaren egileek diote Euskal Herriko gizartearen eta Espainiakoaren artean bereizketa egin behar dela. Bigarren kasuan hedabideen influentzia zuzena ikusten bada ere (espainiar gizartearen irudikapenak bat egiten du, orokorrean, hedabideek zabaldutakoarekin), Euskal Herriaren kasuan haustura bat ikusten da komunikabideetan gailentzen den ikuspuntuaren eta jendeak duenaren artean (bere burua abertzaletzat duten alderdien boto kopurua askoz altuagoa da prentsa abertzalearen kontsumoa baino).

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- BALANDIER, Georges, *Antropo-lógicas*.
- DAHRENDORF, R., *Elementos para una teoría del conflicto social*.
- ZALLO, Ramón eta CASTELLS, J. Manuel (zuzendariak), *La teoría de transformación de conflictos aplicada al caso vasco*, EHUko Uda Ikastaroa, 2002.

Honen barnean bereziki:

- RAMÍREZ de la PISCINA, T., *Medios de comunicación y conflicto vasco*.
- RUÍZ OLABUENAGA, J.I., *La situación de los derechos humanos en Euskal Herria*.
- Irakasgaiaren apunteak.